

## Hautatutako izangaiek egin beharrekoa

### 1. Dokumentazioa

Agiriak aurkeztea. (Deialdiko 11.1. puntua)

**Hautatutako izangaiek hogei egun naturaleko epea izango dute izangai hautatuen behin-betiko zerrendak argitaratzen direnetik.**

- a. Kidegoan sartzeko eskatutako tituluaren fotokopia konpultsatua edo titulua emateko eskubideak ordaindu direla adierazten duen ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua. Hautaketa-prozesuan zehar aurkeztu dutenek ez dute aurkeztu behar.
- b. Indarrean dagoen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua.
- c. Zinpeko Aitorpena edo agindua hezkuntza.net orrian agertuko den ereduaren arabera.
- d. Desgaitasunen bat izan, eta bere izaera horretaz baliatu diren izangaiek, izaera hori eta dagozkion zeregin eta eginkizunak betetzea bateragarriak direla jasotzen duen agiria entregatu behar dute. Baldin eta aldez aurretik ez badute aurkeztu.
- e. Deialdi honen 2.2.3 oinarrian aipatzen den prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa edukitzea betekizun horretatik salbuetsita daudela egiaztatzen duen tituluarena. Ez dute horrelakorik aurkeztu behar hautaketa-prozesuan zehar dagoeneko aurkeztu dutenek.
- f. Epai irmo baten bidez sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik zigortuak izan ez direla adierazten duen ziurtagiria, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak egina. Hala ere, Hezkuntza Sailari aipatutako datuak egiaztatze-sistema elektronikoen bitartez kontsultatzeko berariazko baimena ematen diotenek ez dute aurkeztu beharko, 3.1.5 oinarrian adierazitakoaren arabera.

\* Aurreko deialdietan agertu den mediku ziurtagiriaren eskaera oraingoan ez dago.

### 2. Praktikak

#### Praktikaldia egiteko lanpostua aukeratzeko orduan

- Plaza aukeratzeko EPEn ateratako notaren arabera ordenatzen da zerrenda.
- Praktikaldia EPEn lortutako espezialitatean egin behar da.
- Kontuan hartu lanpostuak bi urterako hartzen direla bakanteak jarraitzen badu.
- Aplikazio informatikoan lurralde bat baino gehiago aukera daiteke.

## Praktikaldirako arauak

- Praktiketako funtzionarioak irailaren 1ean izendatzen dira, eta karrerako funtzionarioak praktikaldia gaindituz gero, hurrengo irailaren 1ean.
- Praktikaldiaren ikasturtean, gutxienez, sei hilabete gehi egun 1 lan egin behar da. Salbuespenak daude: amatasunean, haurdunaldian, gaixotasun luze batean... hiru hilabete gehi egun 1 jarraian (eskatu behar da).
- Praktikak Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak aipatutako kausa batengatik ezin bada egin, urte bat atzeratzeko bost eguneko epea izango da.
- Praktiketako ordu kopurua betetzeko, lanaldia heren batean gehienez murriztu ahal da.
- Ikastetxeari dagokion ikuskariaren eta ikastetxean izendatutako tutore baten ardurapean egiten da praktikaldiaren ebaluazioa. Ez da notarik jartzen, gai edo ez-gai baizik. Praktikaldia gainditu ez duenak hurrengo ikasturtean egiteko aukera izango du soilik. Berrirori suspenditu edo egin ezean, oposizioa galtzen da.

## Lekualdatze lehiaketan lehenengo parte hartzea

- Behin betiko lanpostua lortu arte, urtero derrigorrez parte hartu behar da.
- EPEn lortutako notaren arabera ordenatzen dira lehenengo urtean, eta ezin da meriturik aurkeztu.
- **EPEn plaza atera den espezialitatean emango da lehenengo behin-betiko destinoa.**
- Eskaera betetzerakoan hiru lurraldeetako ikastetxeak jar daitezke. Ofizios ematekotan, aplikazio informatikoan aukeratu duzun lurraldean emango dizute lanpostua (ez baduzu aukeratzen lanean zauden lurraldean eman dezakete).
- Behin betiko lanpostua lortzen ez duena behin-behineko funtzionarioa izango da. Behin betiko destinoa lortu arte, urtero parte hartzera derrigortuta dago. Egoera honetan meritu guztiak aurkez daitezke puntuak lortzeko. Behin betiko esleituiko zaizun lehenengo plazari uko egiterik ez dago.
- EPEn **ateratako espezialitatean soilik** lehia daiteke.

## Prozesua hasiko denean STEILASek informazio hitzaldiak antolatuko ditu

[www.steilas.eu](http://www.steilas.eu)

### Araba

Eulogio Serdán 5  
01012 Gasteiz  
☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eu

### Bizkaia

Jose Maria Eskuza 1, 1 esk.  
48013 Bilbo  
☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eu

### Gipuzkoa

Basotxiki 30-34 atz.  
20015 Donostia  
☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eu

### Nafarroa

Joaquin Beunza, 4-6  
31014 Iruñea  
☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eu